

EUSKAL HERRIKO KIROL MARKAK ETA ERREKORRAK

<https://kiolerrekorrak.eus/>



2022ko kirol errekorrak

2022ko marka berriak

.....

MENDI LASTERKETAK

.....

Donostia, 2022ko abenduaren 21a

ALBISTEAK

→ <https://kirolerrekorrak.eus/euskal-herria-mendi-erronkako-errekorrak/>

Euskal Herria Mendi Erronkako errekorrak

2022.06.7 | EHKM, EMAKUMEAK, ERREKORRAK, ERRREKOR BERRIA, GIZONAK, MENDI LASTERKETAK

2019tan ezarritako erreleboko errekorra hautsi dute aurtengo edizioan, Hodei Lujanbio eta Oihana Zubillagak

Bi urteko etenaldiaren ostean, 475 bat lasterkarik parte hartu zuten pasa den maiatzaren 4an Leitzan hasi eta bukatu zen Euskal Herria Mendi Erronkaren VIII. edizioan.

Euskal Herria Mendi Erronka (EHME) kirol ekitaldi hutsaz gain, aldarrikapena ere oinarrian daraman lasterketa da, izan ere, mendi lasterketa eta euskal mendizaletasuna sustatzeaz gain, euskal selekzioen ofizialtasuna, Mendialdea-Aralarko inguruaren garapena (Araitz-Betelu, Larraun-Lekunberri eta Leitzaldea), euskararen sustapena, lurraldetasuna edo ingurugiroaren babesean eragitea ere hasieratik ezarritako “erronkak” bihurtu ziren. Baina bereziki auzolan erraldoia da, 400 boluntariok egindako lanaren emaitza delako.

ESAITekin [Euskal Selekzioaren Aldeko Iritzi Taldea] hasi zen proba egiten, mendi lasterketen inguruan ofizialtasuna lortzeko, eta ESAIT desagertu zenean, filosofia horrekin segitzea erabaki zuten. Horregatik urtero euskararen alde, euskal mendizaletasunaren alde... egiten duen norbait omentzen saiatzen dira antolatzaileek.

Aurtengo lasterketa 08:00etan abiatu zen eta hamabost minutu lehenago, 07:45ean, aitzindariak izan ziren andereño euskaldunak (Kontxi Beitia Oiarbide pasaitarra, Izaskun Gastesi Zubeldia gorritiarra eta Kontxi Zabaleta Labaien leitzarra) omendu zituzten, euskarari eta euskal irakaskuntzari oztupoz beteriko garai batean egindako ekarpenagatik.

Lasterketari dagokionez, ohi bezala bi modalitate izan ziren, 67 kilometrokoa banaka egin beharrekoa eta erreleboka (32,8 km + 34,2 km) bi lagunek osatutakoa:

Ultra lasterketa: Lasterketa honek 67 kilometro eta 7.200 metroko desnibel metatua ditu eta Araitz-Betelu, Larraun-Lekunberri eta Leitzaldean barna ibiltzen dira lasterkariak. Hasiera eta helmuga puntuak Leitzan dituzte eta tartean sei kontrol-puntu eta bederatzi anoa-gune pasatzen dituzte. Irumugarrieta da ibilbideko punturik altuena (1.431 m), lasterketako 22.1. kilometroan, hain zuzen.

Errelebo lasterketa: EH Mendi Erronka lasterketaren ibilbide bera du, baina emakumeen parte hartzea sustatzeko asmoz bikoteka erreleboetan egin ahal izaten da, eta bietako batek, gutxienez, emakumea izan behar du. Lehenengo lasterkariak irteera puntutik Putzuzarreko anoa-gunerainoko zatia egiten du (32,8 km). Putzuzarren erreleboa ematen dio bikotekideari eta bigarren horrek Putzuzarretik Leitzako helmugaraino gelditzen den zatia egiten du (34,2 km).

67 kilometroko proba gogorrean, gizonezkoetan, Ugaitz Artola (6 :56:49) izan zen azkarrena, eta berarekin batera, Asier Rajadok (7:02:56) eta Jon Ander Zabaleta (7 :05:37) osatu zuten podiuma.

→ <https://kirolerrekorrak.eus/oihana-kortazarrek-arnoko-mendi-lasterketako-errekorra-ondudu/>

Oihana Kortazarrek Arnoko mendi lasterketako errekorra ondu du

2022.06.6 | EHKM, EMAKUMEAK, ERREKORRAK, ERRREKOR BERRIA, MENDI LASTERKETAK

Behin baino gehiagotan irabazi izan du proba elgetarrak, baina oraingoan errekor berria ezarri du, 1:47:58ko denbora eginda

Igande goizean jokatu zen Mutrikun Arnoko mendi lasterketa, 10:00etan hasita. Guztira 88 korrikalarik eman zuten izena, baina 83 abiatu ziren azkenean. Ibilbideko gorabeherak bide, 80 heldu ziren helmugara.

Mutrikun bizi den Oihana Kortazar elgetarra izan zen emakumerik azkarrena, aurretik zegoen errekorra hobetu zuelarik gainera. Behin baino gehiagotan irabazi izan du proba elgetarrak, baina oraingo honetan marka ere ondu zuen, 1:47:58ko denbora eginda.

Bigarren sailkatua, Eneritz Basurko ondarrutarra izan zen 2 ordu, 15 minutu eta 3 segundoko denborarekin, eta Leire Olazabal debarrak osatu zuen podiuma, 2 ordu 18 minutu eta 58 segundotan ibilbidea osatuaz.

SAILKAPENA

- 1 Oihana Kortazar Aranzeta (Mutriku) 1:47:58
- 2 Eneritz Basurko Pagoaga (Ondarroa) 2:15:03
- 3 Leire Olazabal Urzuriaga (Deba) 2:18:58
- 4 Vanessa Pedrero Salazar (Zumaia) 2:19:19
- 5 Maider Unanue Arruabarrena (Mutriku) 2:34:20
- 6 Maider Gorritiberea Astigarraga (Mutriku) 2:44:48
- 7 Leire Fernandez Beitia (Mutriku) 2:44:49
- 8 Amaia Esnaola Salegi (Mutriku) 2:45:22
- 9 Leire Unanue Arruabarrena (Zumaia) 2:46:23
- 10 Miren Barrueta Jaio (Muxika) 2:46:25

XVI. ARNOKO MENDI LASTERKETA – 2022

Data: 2022.ko Ekainak 5

Ordua: 10:00tan

Irteera eta helmuga: Txurruka Plaza

Kilometroak: 22 km.

Desnibel metatua: 1.097 metro.

Kontrolak: 2 (Arno eta Galdona)

Gutxieneko altuera: 12 metro (Mutriku)

Gehiengo altuera: 601 metro (Arnoko kurutzeta)

Ibilbidearen ezaugarriak

Asfaltoan 3050 metro

Zementozko pistan 1300 metro

Mendi bideetan 17650 metro

→ <https://kirolerrekorrak.eus/urdunako-mendi-lasterketako-errekorra-apurtu-dute-ainara-urrutiak-eta-imanol-gonik/>

Urduñako Mendi Lasterketako errekorra apurtu dute Ainara Urrutiak eta Imanol Goñik

2022.11.19 | EHKM, EMAKUMEAK, ERREKORRAK, ERRREKOR BERRIA, MENDI LASTERKETAK

Probaren bosgarren edizio honetan, orotara 500 korrikalari bildu ziren, hoiien artean izen esanguratsuak, hala nola, Oihana Kortazar, Asier Larruzea, Lorena Campomar, Imanol Goñi, Ainara Urrutia, Lorena Guinaldo edota Jon Durana

Pasa den igandean, Urduñan lehiatu zuten EMFk antolatzen duen Euskal Koparako puntuagarria zen azken proba, Urduñako mendi lasterketa. Probaren bosgarren edizio honetan, orotara 500 korrikalari bildu ziren, hoiien artean izen esanguratsuak, hala nola, Oihana Kortazar, Asier Larruzea, Lorena Campomar, Imanol Goñi, Ainara Urrutia, Lorena Guinaldo edota Jon Durana.

Probaren abiapuntua eta helmuga Urduñako Foru Plaza zen. Guztira, 33 kilometro eta 1.750 metroko desnibel positiboa osatu behar izan zuten lasterketa nagusian eta bertan egon ziren aurrez aipatutako kirolariak, besteak beste, Fraile gailurra, Txolope eta Bedarbide zeharkatuz.

Gizonezkoetan azkarrena Imanol Goñi (Arrolape) izan zen, Bastida Vital Trailen lortutako bigarren postuko arantza kendu zuena. Natxituakoak, lau korrikalarien taldeari markatu zion erritmoa, eta 2:46:16ko denborarekin amaitu zuen, marka horrekin probako errekorra hautsi zuelarik. Bere atzetik, Asier Larruzea sailkatu zen irabazlearengandik 19 segundora eta hirugarrena Hodei Samaniego izan zen.

Emakumezkoen lehian berriz, Ainara Urrutia nagusitu zen. Urte borobila egin du Urrutiak (Aretxabaleta, 1981), eta Urduñan jarri zion ginga, Euskal Kopako lineako azken lasterketa irabazita. Urrutiak egutegi bete izan du aurten, nazioarteko eta gertuko lasterketetan nabarmendu delarik.

Bada, Aiaramendi Korrikalariak taldeko atleta lehen igoera gaintu ondoren hasi zen kontrarioak atzean uzten, eta alde hori handituz joan zen helmuga zeharkatu zuen arte. Azkenean, Urrutiak 3.24.04ko denbora egin zuen eta bidenabar probaren errekorra ezarri zuen ere. Bigarren sailkatu zen Irati Ortiz de Anda lezamarrari bost minutuko tartea atera zion (3.29.16), Oihana Zubillaga izan zelarik podiuma osatu zuen hirugarren lasterkaria.

Garaipen horrekin, eta lineako Euskal Kopako bost lasterketetan batutako puntuei esker –Kolazino Mendi Eguna, Kilimon Trail, Amurrio Trail, Labastida Trail eta Urduñako Mendi Lasterketa–, Urrutiak EMFk antolatzen duen Euskal Kopa poltsikoratu du, baita beteranoen kategorian ere. Gizonezkoetan, berriz, Urduñan bigarren sailkatu zen Asier Larruzearendako izan da Kopa

EMF Kopako azken sailkapenean, gizonezkoen junior kategorian, Ibai Cebríanek Mikel Bazek eta Joz Razkinek baino puntu gehiago lortu zituen. Junior femeninoan Izaro Eguibar Jone Fuente baino erregularragoa izan zen; Gazteetan, Ibai Angulo podiumearen gailurrera igo zen, Naroa López Kadeteetan bezalaxe. Beteranoen A taldean, Ainara Urrutia eta Hanot Echeverriarentzat izan da titulua, Beteranoen B taldean Josu Millan izan zen onena eta Beteranoen C taldean Francisco Javier Aldayk irabazi du

→ <https://kirolerrekorrak.eus/iturbe-eta-murgoitiok-arrasate-udalatx-mendi-lasterketako-errekorrak-ondutuzte/>

Iturbe eta Murgoitiok, Arrasate-Udalatx mendi lasterketako errekorrak ondu dituzte

2022.04.12 | EHKM, EMAKUMEAK, ERREKORRAK, GIZONAK, MENDI LASTERKETAK

Aurretik Oihana Azkorbebeitiak eta Asier Larruzeak zituzten markak hautsi dituzte

Pasa den igandean, apirilak 10, Arrasate-Udalatx mendi lasterketaren seigarren edizioa jokatu zen non Onditz Iturbe eta Gontzal Murgoitio nagusitu ziren. Are gehiago, aurretik Oihana Azkorbebeitiak eta Asier Larruzeak zuten errekorra ondu zuten.

Gizonezkoen lehian, Gontzal Murgoitio elorriarra izan zen azkarrena, orain arte Asier Larruzeak zuen errekorra –1.47.37– ondu zuelarik, 1.47.22ko denbora eginda. Lasterketaren buruan izan zen hasieratik, bost laguneko taldetxoan joan zelarik Udalaizteraino baina igoeran erritmoa gogortu eta aurrera egin zuen bakarrik. Azkenean, bera izan zen helmugaratzen aurrena, lehengo errekorra hamabost segundoan apurtu zuelarik. Asier Larruzea gueñestarra sailkatu zen bigarren (1.50.13), eta Aritz Kortabarria arrasatearra hirugarren (1.54.37).

Emakumezkoetan Onditz Iturbek ez zuen areriorik izan. Hasieratik jarri zen lasterketaren buruan, eta atzean utzi zituen Oihana Azkorbebeitia eta Malen Osa. Gainera, Azkorbebeitiaren errekorra – 2.11.06– ondu zuen 2.07.32ko denbora eginda. Emakumezkoen podiuma Oihana Azkorbebeitia abadiñarrak –2.11.17– eta Malen Osa oñatiarrak –2.13.31– osatu zuten.

SAILKAPENAK

Emakumezkoak

- 1 ITURBE ARGINZONIZ ONDITZ 02:07:32 IGORRE
- 2 AZKORBEBEITIA URIZAR OIHANA 02:11:17 ABADIÑO
- 3 OSA ANSA MALEN 02:13:31 OÑATI
- 4 URRUTIA YURREBASO AINARA 02:13:36 ARETXABALETA
- 5 URIBARRI MARTINEZ AINARA 02:18:55 OÑATI

Gizonezkoak

- 1 MURGOITIO ESPARZA GONTZAL 01:47:22 ELORRIO
- 2 LARRUZZEA FERNANDEZ ASIER 01:50:13 GUEÑES
- 3 KORTABARRIA RAJADO ARITZ 01:54:37 ARRASATE
- 4 LETE BIAIN XABIER 01:54:52 OÑATI
- 5 DIAZ ORTEGA DIEGO 01:55:39 ALBACETE

→ <https://kiolerrekorrak.eus/pkemboi-kenyarrak-tolosaldeko-3-tontorrek-mendi-maratoiko-marka-hautsi-du/>

Pkemboi keniarrak Tolosaldeko 3 Tontorrek mendi maratoiko marka hautsi du

2022.06.13 | EHKM, ERREKORRAK, ERREKOR BERRIA, GIZONAK, MENDI
LASTERKETAK

Tolosako proban lehen aldiz lau ordutik jaitsita orain arteko erregistrorik onena ezarri zuen lasterketaren zazpigarren edizioan

Robert Pkemboi atleta keniarrak Tolosaldeko 3 Tontorrek mendi maratoiaren zazpigarren edizioa irabazi zuen eta bidenabar lasterketako marka hautsi zuen, 3.56.29ko denborarekin lehen aldiz lau orduetatik jaitsiz.

Pkemboi oso gustura aritu zen korrika eta uneoro lehen postuan joan zen, azkenean hunkituta sartu zelarik Tolosako Triangulo plazan jarritako helmugan. 43 kilometro eta 2.800 metrotako desnibela duen ibilbidea 3 ordu 56 minutu eta 29 segundutan osatu zuen keniarrak.

Robert Pkemboi zen favorito nagusia eta iragarpenak bete ziren, hasieratik kokatu baitzen lasterketa buruan eta tontor guztietara lehen postuan iritsi zelako. Bere maila erakutsi zuen Zegama-Aizkorri lasterketan bosgarren amaitu ondoren eta Tolosako proban lau ordutik jaitsita orain arteko erregistrorik onena ezarri zuen (kontutan hartu behar da aurten ibilbidearen norabidea aldatu dutela antolatzaileek eta honakoan Hernio mendia izan dela azken igoera gogorra).

Gizonezkoen bigarren onena Altzoko Iñaki Olanorena izan zen (4.07.30), eta Villabonako Hassan Ait Chaouk osatu zuen gizonezkoen podiuma (4.12.03).

SAILKAPENA

- 1 PKEMBOI MATAYANGO, ROBERT KENYA 3:56:29
- 2 OLANO ORBEGOZO, IÑAKI ALTZO 4:07:38
- 3 AIT CHAOU AITCHAOU, HASSAN VILLABONA 4:12:03
- 4 ROMO SANTAMARIA, JAIME PONFERRADA 4:17:18
- 5 CRIADO SÁNCHEZ, RAÚL JACA 4:18:43
- 6 LOPETEGUI NIETO, GOAR IBARRA 4:19:56
- 7 LUJANBIO APEZETXEA, HODEI GOIZUETA 4:23:26
- 8 ZUNZUNEGI TAPIA, AITOR LEGORRETA 4:23:54
- 9 SAMANIEGO BOUSO, HODEI SESTAO 4:29:16
- 10 MADINA, IBAI BERROBI 4:42:38

Emakumezkoetan berriz, Elgoibarko Mayi Mujikak irabazi zuen, 4.54.14ko denborarekin, eta ondoren Nerea Amilibia zarauztarra sailkatu zen (5.23.47). Zizurkilgo Aitziber Ibarbiak osatu zuen podiuma, 6.12.30eko denbora eginda.

24 kilometro eta 1.600 metrotako desnibela dituen bi tontorren mendi lasterketa ere ospatu zen Tolosaldean. Oier Ariznabarreta durangarrak irabazi zuengizonezkoetan 2 ordu 6 minutu eta 34 segunduko denbora eginda, eta emakumezkoetan Maialen Muñoz tolosarra izan zen azkarrena, 2 ordu 38 minutu eta 17 segundutan helmugaratuta.

→ <https://kirolerrekorrak.eus/oihana-kortazarrek-camille-extreme-mendi-lasterketako-errekorra-ondu-du/>

Oihana Kortazarrek Camille Extreme mendi lasterketako errekorra ondu du

2022.06.20 | EHKM, EMAKUMEAK, ERREKORRAK, ERRREKOR BERRIA, MENDI
LASTERKETAK

Elgetarrak, bere bigarren garaipena lortzeaz aparte, 2015etik berak zuen errekorra (5:35:36) 5 minutu eta 38 segundotan hobetu zuen, 3:29:58ko denboran helmugaratuta

Camille eXtreme mendi lasterketa, Izaban hasi eta amaitzen den proba, berriro lehiatu zen pasa den igandean, ekainak 19, pandemiaren ondorioz izandako bi urteko etenaldiaren ondoren, 16. edizio zirrargarri honetan, Xabier Zarranz eta Oihana Kortazar nagusitu zirelarik.

Oihana Kortazarrek gainera, bere bigarren garaipena lortzeaz aparte, 2015etik berak zuen errekorra (5:35:36) 5 minutu eta 38 segundotan hobetu zuen, 3:29:58ko denboran helmugaratuta.

Gainera, txapeldunaren sariari Irene Sarrionandia izena eman berri zaionez (edizio guztiak amaitu dituen 73 urteko korrikalariaren omenez), elgetarrak bere garaikurra oparitu zion lasterkari beteranoari.

SAILKAPENA

Oihana Kortazar (Burumendi) 3:29:58
Oihana Azkorbebeitia (Merrell) 3:49:27
Ainara Alcuaz (Hiru Herri) 3:59:20
Amaia Razkin (Amurrio Trail) 4:10:40
Garay Zarraga (Zortzietakoak) 4:11:17
Izaskun Sanz Elduayen 4:12:17
Etxebeste Lizaso (Aldin KKE) 4:14:04
Laura Sanz (Hiru Herri) 4:27:30
Lasterketaren fitxa teknikoa

Data: 2022ko Ekainak 19

Ordua: 08:00

Irteera eta helmuga: Izabako frontoia

Distantzia: 31,600 km.

Kontrol puntuak : 8

Anoa puntuak: 7

Metatutako desnivela: 4.066 m.

Desnibel positiboa: 2.044 m.

Gehiengo altuera: 2.047 m. Ezkaurre

Gutxieneko altuera : 820 m. Izaba

→ <https://kirolerrekorrak.eus/oihana-azkorbebeitiak-irabazi-du-tena-bailarako-mendi-maratoia-errekor-berria-ezarrita/>

Oihana Azkorbebeitiak irabazi du Tena Bailarako mendi maratoia, errekor berria ezarrita

2022.09.4 | EHKM, EMAKUMEAK, ERREKORRAK, ERRREKOR BERRIA, MENDI LASTERKETAK

Korrikalari abadiñarrak, Ana Taustek 2018an egindako markari 20 minutu jan zizkion, 6.57.45ko denboran helmugaratuta

Pasa den larunbatean, Trail Valle de Tena 4K mendi maratoia lehiatu zen, Panticosan (Huesca), goizeko 8: 00etatik aurrera herriko bainuetxetik abiatuta.

500 bat korrikalarik parte hartu zuten 43 kilometro eta 3.600 metroko desnibel positiboa duen ibilbidean, eta Garmo Negro (3051 m) izan zen igo zuten mendirik garaiena.

Emakumezkoen maila oso altua zen aurten modalitate honetan, Oihana Azkorbebeitia Skyrunning-eko Munduko Kopan maila bikainean lehiatzen ari den euskal korrikalaria bertan zela: besteak beste, Marta Riba 2017ko irabazlea, Igone Campos, Ainhoa Elizondo, Yaiza Miñana, Laiane Arrospide, Aiara Garaialde eta Jelena Malyseva.

Mendian beti gertatzen den bezala, meteorologia izan zen eguneko protagonista. Urruntzen ari zen ekaitz baten islek egunsentia argitzen zutela, orduak aurrera egin ahala eguzkia hodeiekin tartekatzen hasi zen, eta euria, uste baino arinagoa izan zen.

Azkenean, faborittoa zen Azkorbebeitiak irabazi zuen proba, 6.57.45ko denboran helmugaratuta, eta Indarpark taldeko Larraitz Aragon durangarra izan zen bigarrena (7.17.44). Ainhoa Elizondo (7:22:48) hirugarren sailkatu zen eta Igone Campos (7:24:58) laugarren. Top5a Jelena Malyseva lituaniarrak itxi zuen.

Azkorbebeitiak probako errekor berria ezarri zuen gainera, aurrekoari 20 minutu janda. Bera ez zen izan 2018ko Ana Tausteren errekorra ondu zuen bakarra ordea, izan ere bere atzetik sailkatu ziren arestian aipaturiko beste hiru euskal korrikalariak ere marka hobea egin zuten.

Azkorbebeitiak denboraldiko zazpigarren garaipena lortzeaz aparte, arantza kentzea lortu du, izan ere, Panticosako lasterketa aurtengo helburu nagusietarikoa zen. 2018an erretiratu egin behar izan zuen eta proba osoaz eta ibilbide ikusgarriaz gozatzeko irrikitan zegoen.

→ <https://kirolerrekorrak.eus/sarah-ugartek-eta-raul-criadok-irabazi-dute-leyre-trail-mendi-lasterketa/>

Sarah Ugartek eta Raul Criadok irabazi dute Leyre Trail mendi lasterketa

2022.10.24 | EHKM, ERREKORRAK, MENDI LASTERKETAK

Bi irabazleak errekorretatik urrun geratu ziren, izan ere, 2019an Manuel Merillasek 1:49:24ko marka egin zuen eta urte berean Ainhoa Sanzek emakumezkoen errekorra ere ezarri zuen (2:07:01)

Pandemiak eragindako bi urteko etenaldiaren ostean, V. Juan Migueliz Leyre Trail mendi lasterketa lehiatu zen pasa den larunbatean, hilak 22, non 300 korrikalari inguru aritu ziren nor baino nor gehiago.

Goizeko 10:30ean atera ziren korrikalariak Leireko monasteriotik gertu, 21 kilometroko ibilbideari (1.400m+) aurre egiteko asmoz. Kilometro horietan mendilerroaren isurialde batetik eta bestetik ibili ziren, Portillo de la Cerrada eta Hartzaren Pasabideko 750 metroko altueratik El Castellarreko 1.286 metrotara ailegatu zirelarik, ondoren Arbayungo balkoitik 1.000 metrora jaitsi eta Arangoitiko 1.356m-ra igotzeko.

Emakumezkoen lehian, Sarah Ugartek erdietsi zuen garaipena nagusitasun osoz. Tolosan bizi den donostiarrak 2 ordu 27 minutu eta 35 segundo behar izan zituen ibilbidea osatzeko. Axeriak taldeko lasterkariak, bost minututik gorako alde atera zion Ines Patricia bigarren sailkatuari (2.32.47), eta burlatarraren atzetik helmugaratu zen, hirugarren postuan, Paula Leoz iruñarra (2.41.32).

Gizonezkoetan berriz, Canfranceko Raul Criado (2017an Kilometro Bertikaleko jaitsierako munduko errekorra gainditu zuena), izan zen azkarrena. Criado 1:53:17ko denborarekin helmugaratu zen, atzetik bigarren Ander Iñarra lezoarra (1:53:30) eta hirugarren Irunberriko Xabier Zarranz (1:57:28) sailkatu zirelarik.

Hala ere, bi irabazleak errekorretatik urrun geratu ziren, izan ere, 2019an Manuel Merillasek 1:49:24ko marka egin zuen eta urte berean Ainhoa Sanzek emakumezkoen errekorra ere ezarri zuen (2:07:01).

SAILKAPENAK

Emakumezkoak

Sarah Ugarte (Axeriak MLT) 2:27:35
Ines Patricia (Hiru Herri) 2:32:47
Paula Leoz (CD Navarra) 2:41:32
Emi Ugarte (Axeriak MLT) 2:43:32
Lourdes Basterretxea (Erdella) 2:45:37
Gizonezkoak

Raul Criado 1:53:17
Ander Iñarra (Aldin) 1:53:30
Xabier Zarranz (Txurregi) 1:57:28
Asier Labairu (A4xKm) 1:57:46
Javier Azcoiti (Irati) 2:02:13

→ <https://kirolerrekorak.eus/errekorra-jarri-du-jokin-tolosak-segura-zerain-mendi-lasterketako-proba-motzean/>

Errekorra jarri du Jokin Tolosak Segura-Zerain mendi lasterketako proba motzean

2022.05.8 | EHKM, ERREKORRAK, ERREKOR BERRIA, GIZONAK, MENDI LASTERKETAK

1:08:13ko denbora eginda, aurreko marka, Iñaki Hormaetxeak egindakoa, 14 segundoan hobetu zuen

173 korrikalarik parte hartu zuten pasa den maiatzaren 7an Segurako plazan hasi eta bukatu ziren 15 eta 25 kilometroko lasterketetan: motzean 96 korrikalari (19 neska) eta luzean 77 (5 neska). Beroa izan zen protagonistetako bat eta Jokin Tolosa Zabala anoetarra beste bat, proba motzeko marka hobetu baitzuen. Aurreko marka, Iñaki Hormaetxeak egindako denbora, 14 segundoan hobetu zuen.

Tolosak lehenengo aldiz hartu zuen eta hasieratik joan zen lasterketaren buruan Aitor Etxeberriarekin batera, Etxeberria azkeneko jaitsieran atzean utzi eta bakarrik helmugaratu zelarik. Denbora hobetzea posible zela ikusi zuen eta estutzen joan zen, azkenean sari bikoitza eskuratu zuelarik, garaipena eta errekorra (1:08:13).

15 kilometroko lasterketa motzeko bigarren sailkatua Aitor Etxeberria berastegierra (1:10:14) izan zen eta hirugarrena Mikel Zabalegi ordiziarra (1:10:34).

Emakuzmekoetan, Irati Larrañaga usurbildarra izan zen garailea (1.26:37), Lara Estebanez legazpiarra (1:27:03) eta Laiane Arrospide tolosarraren (1:28:41) aurretik.

25 kilometroko proba luzean, Walther Becerra bizkaitarrak (2:17:41), Ibai Madina berrobiarrak (2:22:13) eta Ioseba Eskudero idiazabaldarrak (2:23:08) osatu zuten podiuma. Emakumezkoetan, berriz, Oihana Zubillaga anoetarra (2.57:21), Janire Lopez zaldibiarra (3:13:53) eta Edurne Arakistain legorretarra (3:20:56) izan ziren hiru lehenak, hurrenez hurren.

→ <https://kirolerrekorrak.eus/2023ko-zegama-aizkorri-maiatzaren-14an-izango-da-aurtengo-errekorrak-ortzimugan/>

2023ko Zegama-Aizkorri maiatzaren 14an izango da, aurtengo errekorrak ortzimugan

2022.11.18 | EHKM, ERREKORRAK, LASTERKETAK

Bi urtez bertan behera geratu ondoren, munduko mendi maratuirik esanguratsuen 2022an itzuli zen errekor edizio batekin: Kilian Jornetek eta Nienke Brinkmanek lortu zuten garaipena 2017ko errekorrak hautsiz, 3h36.40 eta 4h16.43 denborarekin, hurrenez hurren

Zegama-Aizkorri mendi maratoiko antolakuntzak finkatu du dagoeneko 2023ko 22. maratoiaren eguna: maiatzaren 14a. Kilometro Bertikala, berriz, maiatzaren 12an jokatu da.

Maratoiko dortsalak eskuratzeko aurre izen emateak urtarrilaren 16an irekiko dira, 12:00etan, rockthesport.com plataformaren bitartez. 10 egunez, parte hartu nahi duen orok izena eman ahal izango du maratoiaren dortsal bat eskuratu ahal izateko; urtarrilaren 30ean, berriz, kilometro bertikalerako eta junior trailerako epea irekiko da. Dorsalen zozketa otsailaren 24an egingo da.

Probak urtetik urtera aurre inskripzioen errekorra hausten du, eta 2022ko ediziorako 12.500 eskaera baino gehiago egin ziren 225 plazetarako.

Bi urtez bertan behera geratu ondoren, munduko mendi maratuirik esanguratsuen 2022an itzuli zen errekor edizio batekin: Kilian Jornetek eta Nienke Brinkmanek lortu zuten garaipena 2017ko errekorrak hautsiz, 3h36.40 eta 4h16.43 denborarekin, hurrenez hurren. Eta audientzia-errekorra ere izan zen: Maratoiaren lehen emanaldi osoa zen hartan, Youtubeko historian bistaratze gehien izan zituen gaztelaniazko trail lasterketa bihurtu zen. Mendi maratoia lau hizkuntzatan jarraitu ahal izan zen zuzenean Teledeporte, Euskal Irrati Telebista (EITB), TV3-Esports3 eta ingelesez eskaini zuen Golden Trail World Series bere Youtubeko katearen bidez.

Esan bezala, pasa den maiatzaren 29an, mendi lasterketetako korrikalaririk onenak bildu ziren 2022ko Golden Trail World Series txapelketarako puntuagarria zen proban.

Kilian Jornet kataluniarrak aurreikuspenak bete eta aise gailendu zen Zegama-Aizkorri lasterketan, Magrini italiarra eta Merillas espainiarraren aurretik. Jornetek, gainera, probako markarik onena ia 9 minututan hobetu zuen. Emakumezkoetan, Nienke Brinkman herbeheretarra nagusitu zen, eta honek ere historiako markarik onena egin zuen.

Baldintzak lagun, gizonetzkoen lehian Jornetek aise hobetu zuen Stian Angermund norvegiarrak 2017an egindako denbora: 3 ordu, 45 minutu eta 8 segundo. Sabadellekoak hamargarren garaipena lortu zuen, lasterketa 3:36:41eko denborarekin amaituz.

Zortzi minututan baino gehiagotan jaitsi zuen errekorra beraz (8 minutu eta 27 segundotan hain

zuzen ere) eta 10 minututan baino gehiagotan ondu zuen bere markarik onena lasterketa honetan. Izan ere, Kilian Jornetek 2014an lortu zuen lasterketako errekorra (3:48:38) baina hiru urte geroago, Stian Angermund-ek kendu zion (3:45:08). Bigarren helmugaratutako David Magninik ere 2017ko Stian Angermunden errekorra hautsi zuen.

Emakumezkoen lehian berriz, Nienke Brinkman herbeheretarra bere aurkariak baino askoz gehiago izan zen. Brinkman 4:16:45eko denborarekin helmugaratu zen, atzetik Maude Mathys suitzarrak eskuratu zuelarik bigarren postua. Sara Alonso, 23 urteko donostiarrak, lasterketa bikaina egin zuen eta hirugarren izan zen bere debutean.

Nienke Brinkmanek 2017an Maite Maiorak 2017an ezarritako marka (4:34:27) ia 18 minututan hautsi zuen, 17 minutu eta 42 segundotan ondu zuelarik. Podiuma osatu zutenek ere Maioraren marka hautsi zuten, suitzarrak zortzi baino gehiagotan egin zuen eta Sara Alonsok ere Maioraren marka ondu zuen -Maude Mathys lasterketa amaieran harrapatzeaz egon zen-.

→ <https://kirolerrekorak.eus/oihana-kortazarrena-da-anetoko-igoera-eta-jaitsieraren-errekorra/>

Oihana Kortazarrena da Anetoko igoera eta jaitsieraren errekorra

2022.05.26 | EHKM, EMAKUMEAK, ERREKORRAK, ERRREKOR BERRIA, MENDI LASTERKETAK

1998an Emma Roca katalanak egindako marka 22 minututan ontzea lortu zuen

2021eko uztailaren 23an, Oihana Kortazar mendi korrikalari elgetarrak Anetoko igoeraren errekorra hautsi zuen, eta, azpimarratu zuenez, Emma Roca omentzeko egin zuen. Izan ere, berak zuen aurreko errekorra (5.02.31), eta ekainean hil zen, 47 urte zituela, minbizi baten ondorioz.

Guztira, 4 ordu, 40 minutu eta 42 segundu behar izan zituen Kortazarrek 3.404 metroko altuera eta 2.300 metro baino gehiagoko desnibela duen Aneto mendia (Huesca) igo eta jaisteko, hartara 1998an Emma Roca katalanak egindako marka 22 minututan ontzea lortu zuelarik.

39, 7 kilometroko ibilbidea jarraitu zuen Kortazarrek, Vallibierna eta Ibones de Coronas-ekoa, Rocak 1998an Aneto X-Treme Marathon-en egindako berbera. Orduko hartan katalanak 5 ordu, 2 minutu eta 31 segundu behar izan zituen, eta berea zen orainarteko errekorra.

Duela hogeit bat urtetik zegoen indarrean igoera eta jaitsieraren erronka, Emma Roca eta Teresa Rocak egin zutenetik eta eurek egindako denbora ontzeaz gain, biak omendu nahi izan ditu Kortazarrek. Gainera, Teresa Roca beraren aholkuak eta babesa ere izan zituen errekorra lortzeko garaian. Berak irabazi zuen Aneto X-Treme Marathon 1999an, eta 1998an Anetoko igoeran denborarik onena egin zuen, Emma Rocak irabazi zuen urtean. Teresa Rocak 3 ordu 10 minutu eta 50 segundu behar izan zituen 1998an mendia igotzeko, eta Kortazarrek 24 minutu gutxiagoan egin zuen, 2 ordu eta 46 minutu behar izan baitzituen.

Anetoren erronka izaera berezia zuen Kortazarrentzat. Honakora arte, soilik behin igotakoa zuen mendia, 2008ko maiatzean, mendizale lagun koadrilarekin. Artean oraindik ez zen mendi lasterketetan murgildua baina Aneto igo eta hilabete batzuetara hasi zuen mendi lasterketari gisa izandako ibilbide oparoa. Hasieran afizionatu gisa, gerora Euskal Selektzioarekin garaipenak eskuratuz, harik eta 2011tik aurrera nazioarte mailan ezaguna egin zen arte, Zegaman eta Sierre Zinalen garaile atera ondotik.

Elgetarrak bere marka saiakera goizeko 5:45etan hasi zuen Benasqueko Enparantza Nagusitik abiatuta, eta hasieratik garbi zuen gakoa igoeran zegoela, hor eman behar baitzuen zuen onena geroago oso teknikoa zen jeitsieran izango zituen arazoak konpentsatzeko. Gauzak horrela, gogotik saiatu zen aurreneko 18 kilometrotan gailurrera 2 ordu eta 46 minutuko denboran ailegatuta (igoera errekorra baino 24 minutu gutxiago), handik aurrera ederki asmatu zuelarik esfortzuak orekatzen, azkenean helmugara iritsi zuelarik marka berria poltsikoratuta.

→ <https://kirolerrekorrak.eus/loic-robert-eta-oihana-azkorbebeitia-gailendu-dira-uharte-arakil-beriaian-km-bertikalean/>

Loic Robert eta Oihana Azkorbebeitia gailendu dira Uharte Arakil-Beriaian Km Bertikalean 2022.09.27 | EHKM, MENDI LASTERKETAK

Ez zuten 2015ean Aitor Osak (39:54) eta 2019an Ainhoa Sanzek lortutako errekorra (47:54) gainditzetik izan ordea

Primerako eguraldia lagun zutelarik eta Aralar Mendi klubak ezarritako 200 partaideen muga beteta, korrikalariak gogotsu ekin zioten mendi lasterketak dituen 5 km eta 1.023 metroko desnibel positiboa betetzeko asmoari, binaka atera zirelarik 30 segundoko tartearrekin.

Ikusle asko gerturatu ziren probaren nondik norakoa bertatik bertara ikustera eta sekulako giroa izan zen ibilbide osoan, azken malda gogorretan bereziki. Eskola paretik (471 m) abiatu zen proba, igandean, 10:00etan, eta Beriaian (1.494 m) mendiaren tontorrera iristea zen erronka, azkenean Loic Robert frantziarra eta Oihana Azkorbebeitia abadiñarra nagusitu zirelarik.

Oihana Azkorbebeitiak bere bigarren Uharte Arakil-Beriaian Km Bertikala lortu zuen (48:58) eta 2018 urtean egindako denbora (48:54) baina lau segundo gehiago egin zituen. Lasterketa irabazteaz gain, emakume beterano onenaren saria jaso zuen. Iaz irabazlea izandako Maria Ordoñez faboritoen artean zegoen, kontutan izanda probaren errekorra (47:54, Ainhoa Sanz, 2019) gainditzear egon zela, baina ezin izan zuen Azkorbebeitiaren aurretik helmugaratu.

Gizonezkoetan berriz, Oloron Sainte Marie-ko korrikalaria zitzu bizian atera zen hasieratik, eta bere atzetik abiatu ziren faboritoak, Beunza eta Macias artean. Azkenean berak egin zuen denborarik onena (40:21). Alkotzeko Mikel Beunzari minutu pasa atera zion (41:53) eta Ander Amonarriz hernaniarrari hiru minutu pasa (43:27). 2015ean Aitor Osak ezarritako errekorra (39:54) gainditzeko 27 segundora geratu zen Robert.

Junior mailari dagokionez, Ibai Angulo azpeitiarrak jaso zuen lehen saria, Eneko Etxaniz elgoibardarraren eta Martin Egizabal elgetarraren aurretik. Emakumezkoetan, junior bakarrak hartu zuen parte, Bidaniako Irene Iturriak.

SAILKAPENAK

Emakumezkoak

- 1 AZKORBEBEITIA URIZAR, OIHANA 0:48:58 Abadiño
- 2 ORDOÑEZ MARINA, MARÍA 0:50:18 Iruñea
- 3 PEREIRO GONZALEZ, INMA 0:53:41 Castanedo
- 4 GARAY ZARRAGA, ANDREA 0:55:40 Gasteiz
- 5 LENDINEZ, AINHOA 0:56:37 Elgoibar

Gizonezkoak

- 1 ROBERT, LOIC 0:40:21 Oloron Sainte Marie
- 2 BEUNZA IRAIZOZ, MIKEL 0:41:53 Alkotz
- 3 AMONARRIZ ZUBIONDO, ANDER 0:43:27 Hernani
- 4 MACIAS CIPRIAIN, IÑIGO 0:43:57 Iruñea
- 5 SAMANIEGO BOUSO, HODEI 0:44:05 Sestao

→ <https://kiolerrekorrak.eus/izazpiko-igoerako-errekor-historikoak-indarrean-jarraitzen-du/>

Izazpiko igoerako errekor historikoak indarrean jarraitzen du

2022.05.10 | EHKM, ERREKORRAK, ERREKOR BERRIA, GIZONAK, MENDI
LASTERKETAK

1982.ean Pello Garin zizurkildarrak ezarri zuen errekorra, 31 minutu eta 26 segundo behar izan zituelarik Ezkioko ostatuaren paretik irten, Izazpiko gainera igo, eta hasierako gunera itzultzeko. Urteetan izan dira marka hori gainditzeko saiakerak, baina inork ez du lortu. Aritz Egea gertu izan zen 2017an, baina hemezortzi segundo falta izan zitzaizkion.

Aspaldiko apostu baten ondorio jaio zen Izazpiko Igoera mendi lasterketa, 1978.urtean Jose Antonio Aranzadi ezkiotarrak eta Joxe Aierbe ataundarrak erronka burutu zutenean. Zazpi urtetan herriko jai egitarauaren ekintzen artean kokatu eta 1985ra arte lasterketa burutu izan zen San Migeletan.

Urte horietan guztietan lorturiko denborarik onena 1982.ean Pello Garin zizurkildarrak egindakoa izan zen, 31 minutu eta 26 segundo behar izan zituelarik Ezkioko ostatuaren paretik irten, Izazpiko gainera igo, eta hasierako gunera itzultzeko.

Garindarren geneetan daude lasterka egiteko dohainak eta hala frogatzen dute Peio eta Juan Mari anaiek 1980ko eta 1990eko hamarkadetan lortutako hamaika garaipenek eta errekorrek. Esaterako, oraindik indarrean daude Juan Mari Garinek 1993an Larraiztik Txindokirako bidean egindako 33 minutu eta 33 segundoko marka eta Azpeitiko zezen plazan hamar kilometro egiteko behar izan zituen 31 minutu eta hemezortzi segundoak.

Lasterketa 2016an berreskuratu zen eta ordutik San Migeletako jai batzordekoek parte hartzaileei luzatu dieten erronka izan da errekor historiko hori haustea.

Sei kilometro pasatxo ditu lasterketak, Izazpira igo eta jaitsi. Proba betea da, teknika eta abiadura behar direlako. Aldapa gora dira lehen hiru kilometroak, eta 300 metroko desnibela dago, gutxi gorabehera. Teknikoa da jaitsieraren lehen zatia, baina bigarrena aproposa da abiadura handia hartzeko.

Pasa den igandean, maiatzak 8, Izazpiko VI. Igoera ospatu zen eta honetan Oier Elorza azkoitiarra suertatu zen garaile 34 minutuko denborarekin. Bigarren postua Mikel Fernandez ezkiotarrantzat izan zen 37'55ko denbora lortuz, eta hirugarrena Jose Talavera zumarragarra izan zen (38.05).

Emakumeen sailkapenari dagokionez, Igone Campos zumarragarrak lortu zen txapela 42 minutu eta 57 segundoko denborarekin; Sandra Corriols urretxuarra izan zen bigarrena (46.33) eta Aintzane Olaizola aizarnazabaldarrak hirugarren postua lortu zuen (49.27).

Beraz, denbora ona egin duen arren Garinen marka haustea ez du lortu Elorzak. Izan ere, beste behin argi geratu da oso zaila izango dela marka hori ontzea. Urteetan izan dira errekor saiakerak, baina inork ez du lortu. Aritz Egea gertu izan zen 2017an, baina hemezortzi segundo falta izan zitzaizkion.

→ <https://kiolerrekorrak.eus/jorneten-eta-brinkmanen-marka-harrigarriak-zegama-aizkorri-lasterketan/>

Jorneten eta Brinkmanen marka harrigarriak Zegama-Aizkorri lasterketan

2022.05.30 | EMAKUMEAK, ERREKORRAK, GIZONAK, MENDIA

Kataluniarrak 2017an Stian Angermund norvegiarrak ezarritakoa ondu du eta urte berean Maite Maiorak lortutakoa hautsi du herbeheretarrak

Azken bi urtetan bertan behera geratu ostean, Zegama-Aizkorri lasterketaren XXI. edizioa, igande honetan lehiatu zen, maiatzaren 29an, bertan mendi lasterketako korrikalaririk onenak bildu zirelarik. Lasterketa puntuagarria zen 2022ko Golden Trail World Series txapelketan.

Kilian Jornet kataluniarrak aurreikuspenak bete eta aise gailendu zen Zegama-Aizkorri lasterketan, Magrini italiarra eta Merillas espainiarraren aurretik. Jornetek, gainera, probako markarik onena ia 9 minututan hobetu zuen. Emakumezkoetan, Nienke Brinkman herbeheretarra nagusitu zen, eta honek ere historiako markarik onena egin zuen.

Baldintzak lagun, gizonzkoen lehian Jornetek aise hobetu zuen Stian Angermund norvegiarrak 2017an egindako denbora: 3 ordu, 45 minutu eta 8 segundo. Sabadellekoak hamargarren garaipena lortu zuen, lasterketa 3:36:41eko denborarekin amaituz.

Zortzi minututan baino gehiagotan jaitsi zuen errekorra beraz (8 minutu eta 27 segundotan hain zuzen ere) eta 10 minututan baino gehiagotan ondu zuen bere markarik onena lasterketa honetan. Izan ere, Kilian Jornetek 2014an lortu zuen lasterketako errekorra (3:48:38) baina hiru urte geroago, Stian Angermund-ek kendu zion (3:45:08). Bigarren helmugaratutako David Magninik ere 2017ko Stian Angermunden errekorra hautsi zuen.

Emakumezkoen lehian berriz, Nienke Brinkman herbeheretarra bere aurkariak baino askoz gehiago izan zen. Brinkman 4:16:45eko denborarekin helmugaratu zen, atzetik Maude Mathys suitzarrak eskuratu zuelarik bigarren postua. Sara Alonso, 23 urteko donostiarrak, lasterketa bikaina egin zuen eta hirugarren izan zen bere debutean.

Nienke Brinkmanek 2017an Maite Maiorak 2017an ezarritako marka (4:34:27) ia 18 minututan hautsi zuen, 17 minutu eta 42 segundotan ondu zuelarik. Podiuma osatu zutenek ere Maioraren marka hautsi zuten, suitzarrak zortzi baino gehiagotan egin zuen eta Sara Alonsok ere Maioraren marka ondu zuen -Maude Mathys lasterketa amaieran harrapatzeaz egon zen-.

EMAKUMEZKOEN SAILKAPENA

- 1.- Nienke Brinkman, 4 h. 16 min. 45 sg.
- 2.- Maude Mathys, + 19:30 min.
- 3.- Sara Alonso, + 20:03 min.

GIZONEZKOEN SAILKAPENA

- 1.- Kilian Jornet, 3 h 36 min. 41 sg.
- 2.- Davide Magrini, + 2:31 min.
- 3.- Manu Merillas, + 9:03 min.

→ <https://kirolerrekorak.eus/jon-mendiak-irabazi-du-xxxv-ondarbasoko-igoera-marka-hautsita/>

Jon Mendiak irabazi du XXXV. Ondarbasoko Igoera, marka hautsita

2022.09.4 | EHKM, ERREKORRAK, ERRREKOR BERRIA, GIZONAK, TXIRRINDULARITZA

2016an Jon Agirre txirrindulariak jarritako 11 minutu eta 15 segunduko errekorra segundu batean ondu zuen Mendiak, bidenabar bere erregistrorik onena ere 23 segundutan hobetuz

Larunbat arratsaldean jokatu zen XXXV. Ondarbasoko bizikleta Igoera Zestoan, 18:00etan hasita eta herriko txirrindulari elkarteak antolatuta. Hemeretzi txirrindularik zuten izena emanda hiru kilometroko erlojupeko txirrindularitza proban, baina azkenean hemezortzik parte hartu zuten.

Ohi bezala, plazatik abiatu eta Ondarbaso mendira joan behar zuten partaideek. Erlojupeko proba izanik, txirrindulariak banaka atera ziren, bi minutuko aldearekin.

Proba honek badu berezitasun bat: Zestoan jaiotakoek edo bertan bizi direnek soilik parte har dezakete lasterketan. Dena den, garai batean igoeran jende gutxi ateratzen zela eta, inguruko herrietako txirrindulariei –Zumaia, Aizarnazabal, Azpeitia...– proban parte hartzeko aukera eman zieten, eta sasoi hartan parte hartu zuten kirolariei orain ere proban parte hartzen uzten diete. Hala eta guztiz, arauak indarrean egoten jarraitzen du, eta ezin du edonork parte hartu Ondarbasoko Igoeran.

Azkenean, Ondarbasoko helmugan aurrena Jon Mendia izan zen, 11:14ko denboran ibilbidea eginda. Bigarren postuan Julen Uranga sailkatu zen, bi segundo eskasera eta hirugarren Iratz Pou izan zen.

Garaipena eskuratzeaz aparte, 35. Ondarbaso igoeran denbora errekorra hobetu zuen Jon Mendiak, 2016an Jon Agirre txirrindulariak jarritako 11 minutu eta 15 segunduko errekorra segundu bategatik hobetuz (urte horretan Agirrek hirugarren egin zuen 11:36ko denbora eginda). Halaber, bere erregistrorik onena ere 23 segundutan hobetu zuen txirrindulariak.

SAILKAPENA

- 1- Jon Mendia: 11:14
- 2- Julen Uranga: 11:16
- 3- Iratz Pou: 12:04
- 4- Iñaki Gabarain: 12:28
- 5- Amets Aranberri: 12:49

Hiru neska izan ziren parte hartzaileen artean, eta Leire Uranga izan zen azkarrena, ibilbidea 18:53ko denboran osatuta. 19 urte ditu Urangak eta aurreneko aldiz irten du Ondarbasoko igoeran.

SAILKAPENA

- 13- Leire Uranga: 18:53
- 14- Leire Lopetegui: 19:03
- 16- Maddi Alberdi: 20:35

Urte luze hauek hainbat datu utzi dizkigu lasterketak, besteak beste, ehun parte-hartzaile baino gehiago izan dituela proba honek, lehenengo garailea Jesusmari Iburgurten ‘Lokatxa’ izan genuela, edizio gehienetan parte hartu duen txirrindularia Juan Karlos ‘Otxaka’ izan dela, 21 urtetan zehar, edota proba gehien irabazi dituen txirrindularia Eneko Aristi dela, 11 urteetan segidan izan baitzen garailea.

→ <https://kirolerrekorak.eus/ibai-larre-otsailean-hautsi-zuen-antzuolako-zortzi-miliak-lasterketako-errekorra/>

Ibai Larreak otsailean hautsi zuen Antzuolako Zortzi Miliak lasterketako errekorra

2022.03.28 | EHKM, ERREKORRAK, ERREKOR BERRIA, GIZONAK, MENDI

LASTERKETAK

Ordubete, bi minutu eta 52 segundotan helmugaratuta, 2017an Juanjo Igarzabalek egindako marka hautsi zuen (1:04:38)

2021ekoa pandemiaren eraginagatik bertan behera utzi ostean, 2022ko otsailaren 20an antolatu zuten Antzuolako 8 Miliak mendi lasterketa.

Antzuolako Zortzi Miliak mendi lasterketa 2013an sortu zenetik bederatzigarren edizioa izan zen honakoa, eta, ohi bezala, 13,83 kilometroko ibilbidea eta 836 metroko desnibel positiboa izan zuen. Herriko Plazan hasi, Irimora igo, Trekutzetik igaro eta hasitako tokian amaitu zelarik. Denetara irteera puntuan zeuden 300 partaidetatik 246 lasterkarik amaitu zuten proba.

Gizonezkoetan, etxeko lasterkari bat izan zen azkarrena, Gipuzkoako kros txapelketa irabaztetik zetorren Ibai Larrea gaztea. Era berean, lasterketako errekorra ondu zuen, ordubete, bi minutu eta 52 segundotan helmugaratuta, 2017an Juanjo Igarzabalek egindako marka hautsiz (1:04:38).

Lehia estua egon zen Irimoko gailurrera arte, izan ere, Ibai Larrea antzuolarra eta Iñigo Alzola arrasatearra elkarrengandik oso gertu egon ziren ordurarte. Irimoko tontorrera aurretik iritsi zen arrasatearra, baina probako bigarren erdian antzuolar gaztea nagusitu zen. Bergarako Beñat Etxabek hirugarren egin zuen, podiuma osatuz. Aipatzekoa da, laugarren postuan bi segundutara honen anaia, Jokin Etxabe sailkatu zela.

Sailkapen orokorra (gizonezkoak)

Ibai Larrea Aranguren (1:02:52)

Iñigo Alzola Gordo (1:03:45)

Beñat Etxabe Leturia (1:05:56)

Emakumezkoetan berriz, Maite Maiora mendarorak ez zuen aurkaririk izan eta lasterketa guztia bakarrik egin ostean, garaipen eroso lortu zuen Antzuolako plazan, bigarren sailkaturiko Ane Zabala (1:25:41) arrasatearrari sei minutuko aldea aterata. Arrasatearrendik minutu eskasera iritsi zen hirugarren sailkatua, Irati Larrañaga usurbildarra (1:26:28).

Sailkapen orokorra (emakumezkoak)

Maite maiora Elizondo (1:19:26)

Ane Zabala Bruña (1:25:41)

Irati Larrañaga Matxain (1:26:28)

→ <https://kirolerrekorak.eus/maite-maiora-hiru-haundiak-lasterketako-errekorduna/>

Maite Maiora, Hiru Haundiak lasterketako errekorduna

2022.04.25 | EHKM, EMAKUMEAK, ERREKORRAK, ERRREKOR BERRIA, MENDI
LASTERKETAK

Iazko urrian 40 minututan hobetu zuen Silvia Triguerosek 2014an ezarritako marka

2021eko urriaren 9an, larunbata, hasi zen XXII. Hiru Haundiak mendi lasterketako edizioa, 00.00etan zehazki, 875 lagunengatik partehartzearekin.

Emakumezkoetan Maite Maiora mendarozarra izan zen irabazlea 12:09:39ko denboran helmugaratuta (bosgarren postu absolutuan), bidenabar emakume batek egindako markarik onena hautsi zuelarik, 40 minututan hobetu baitzuen Silvia Triguerosen 2014an ezarritakoa (12:48:22). Bigarren, Oihane Perez bizkaitarra heldu zen (15:21:39), eta Janire Fernandez de Olano arabarrak osatu zuen podiuma (16:10:00).

SAILKAPENA

Emakumezkoak

1 MAITE MAIORA ELIZONDO 12:09:39

2 OIHANE PEREZ REGUERA 15:21:39

3 JANIRE FERNANDEZ DE OLANO 16:10:07

4 ELIXABETE URSUA ELIZAZU 16:27:49

5 JOANNA PAWELCZAK 17:33:08

Hiru Handiak mendi-lasterketa

Hiru Haundiak mendiko iraupen-lasterketa erreferentea da Euskal Herrian, Sociedad Excursionista Manuel Iradierren eskutik antolatuta 1987. urtetik, estatu mailan proba aitzindaria delarik.

Euskal medietako gailur nabarmenenak bateratzen ditu ibilbide berdinean: Gorbea (Araba) 1481m, Anboto (Bizkaia) 1331m eta Aizkorri (Gipuzkoa) 1523m. Gailur bakoitza erkidegoko probintzia bati dagokio eta bakoitza parke natural batean kokatuta dago. Ibilbidea 101km dira, 10.000m baino gehiagoko desnibelarekin eta 24 ordu gehienez erronka betetzeko.

10 urtetan zehar, 1987tik 1996ra, proba urtero antolatu izan da eta hortik aurrera, bi urtetan behin: 1998, 2000, 2002, 2004, 2006, 2008, 2010... 2020. Urtetik aurrera alabaina, lasterketa berriro urtero antolatzeko erabakia hartu zen.

2000, 2002 eta 2004. urteetan, ibilaldiarekin batera, hiru etapatan banatuta zegoen lasterketa bat ospatu egin zen. 2006. urteko edizioan, ibilaldia eta lasterketa bateratu egin ziren, partaide denak modu berean parte hartuz, gutxienezko denborarik gabe eta 24 orduko gehienezko denborarekin.

→ <https://kirolerrekorak.eus/aritz-egeak-irabazi-du-goierriko-bi-handiak-lasterketa-eta-errekor-berria-jarri-du/>

Aritz Egeak irabazi du Goierriko Bi Handiak lasterketa, eta errekor berria jarri du

2022.07.11 | EHKM, ERREKORRAK, ERRREKOR BERRIA, GIZONAK, MENDI LASTERKETAK

Urretxuarra jaun eta jabe izan zen eta Goar Lopetegi bigarren sailkatuari hamazazpi minutu sartu

zizkion, bederatzi ordutan eta 51 minututan helmugaratuta. Gainera, Ion Azpirozen errekorra hamar minututan hobetu zuen eta hamar orduren azpitik amaitu duen historiako lehen korrikalaria da.

Bi urteko geldialdia egin ostean, bueltan izan dugu Euskal Herriko mendi lasterketarik gogorrenetariko bat, Ehunmilak probaren hamargarren edizioan 1.500 korrikalari inguruk parte hartu dutelarik hiru lasterketetan: Ehunmiliak ultra-trailean (168km / D+11.000m), 495 lasterkari, Goierriko Bi Handiak proban (88km / D+6.000m) 515 korrikalari, eta Marimurumendi maratoian (42km / D+2.300m) 265.

Beasaingo proba kuttunena da G2H lasterketa, Goierri eskualdeko Aralar eta Aizkorri mendilerroetan barrena sartzen dena, 88 kilometro eta 6.000 metroko desnibela duelarik. 515 korrikalari aritu dira parte hartzen edizio honetan: 485 gizona eta 31 emakumezko.

Aritz Egea urretxuarrak irabazi du aurtengo Goierriko Bi Handiak mendi lasterketa, errekor berria ezarrita. Hamar ordutik behera jaistea zuen erronka, eta bederatzi ordutan eta 51 minututan iritsi zen Beasaingo helmugara, ia 10 minutuan ondu zuelarik Jon Azpirozek 2019an egin zuen errekorra (10:01).

Bigarren sailkatua, Goar Lopetegi ibartarra izan zen. Egeak baino 17 minutu gehiago behar izan zituen helmuga zapaltzeko (10:09:24). Hirugarren sailkatua, Ioseba Eskudero idiazabaldarra izan zen (10:16:28).

Emakumezkoen lehian, Gemma Barrabeig kataluniarra izan zen garailea, hamalau ordu eta sei minutuko denborarekin. Urrun geratu zen Uxue Frailek 2019an ezarri zuen hamabi ordu eta 11 minutuko errekorretik. Amaia Larreategi beasaindarra izan zen bigarren (14:33'15"), eta Amaia Otxoa de Alda hirugarren (15:06'05").

G2haundiak goierri trailaren fitxa teknikoa

Distantzia: 88 km

Desnibel positiboa: 6000 m

Bide motak: %5 asfaltoa / %25 pista / %70 bidea

Irteera ordua: Ostirala, 23:00

Irteera/helmuga: Loinazko San Martin Plaza, 1 Beasain (udaletxe plaza)

→ <https://kirolerrekorak.eus/oihane-retegi-mendizale-gazteak-kantauriar-mendikatea-zeharkatu-du-markak-hautsiz/>

Oihane Reteği mendizale gazteak Kantauriar mendikatea zeharkatu du, markak hautsiz

2022.09.10 | EHKM, EMAKUMEAK, ERRONKAK, MARKAK, MENDIA

25 egunetan 345 kilometro inguruko mendi ibilbidea egin du oiartzuarrak, 28 kilometroko desnibelarekin. Mugarri bat ezarri du, trabesia osorik egiten duen lehen emakumea izan baita.

Sekulako balentria egin du Oihane Reteği Arrutik, 17 urteko oiartzuarrak: Astur Torrecerredo Mendi elkarteak antolatuta, Kantauriar mendikatea zeharkatu du hamabost lagunek osaturiko gazte talde batekin, ondoan gidari batzuk zituztela laguntzeko. Mendilerroa kantauri itsasoarekiko paralelo doa eta 480 kilometroko luzera du.

Asturias eta Leon herrialdeen arteko mugan eman zioten hasiera zeharkaldiari uztailaren 18an eta Asturias, Kantabria eta Palentzian barrena ibili ziren Alto Campoon bukatu zuten arte, abuztuaren 11n.

Egunero zazpiak aldera jaiki, kanpin dendak desmuntatu, gosaldu ondoren motxila ongi prestatu eta martxan jartzen zen mendizale gazteen taldea, mendian gora.

Zeharkaldian 345 kilometro egin ditu gazteak, 22 etapatan banatuak (hiru egunetan atsedean hartu zuten). Guztira 59 tontor igo ditu, gehienak 2.000 metro ingurukoak, altuena Peña Prieta izan zelarik, 2.539 metroko altuera duen mendia, hain zuzen ere.

Hilabete eskas batean 2.000tik gora metroko dozenaka mendi igo ditu, eta Kantauriar mendikateko trabesia hasieratik bukaerara egiteko gai izan den lehen emakumea izan da beraz. Harekin batera beste neskato adingabe bat ibili da, bakarrak izan dira.

Retegik txikitatik dauka mendizaletasuna, izan ere, Aldura mendiaren magalean bizi da eta oso umetatik ibili da mendian, gurasoekin askotan joan delarik etxe inguruko mendietara.

Datorren urteari begira dago jada oiartzuarra, Sierra Nevadara (Granada, Espainia) joateko asmoa baitu, 3.000 metroko gailurrak egitera, eta datorrenean, Marokora, 4.000 metrokoak egitera. Alpeetan dauden sekretuak ere deskubritu nahi ditu gazte oiartzuarrak eta bere ibilbidea ikusita helburuak gauzatuko dituela argi dugu.

→ <https://kirolerrekorrak.eus/etxarriko-joan-etorria-lasterketaren-errekorra-ondurdu-maria-ordonezek/>

Etxarriko Joan Etorria lasterketaren errekorra ondu du Maria Ordoñezek

2022.10.5 | EHKM, EMAKUMEAK, ERREKORRAK, ERRREKOR BERRIA, MENDI LASTERKETAK

10 kilometro eta 572 metroko desnibel positiboa duen proban, Ordoñezek berak joan zen urtean ezarritako marka (52:14) 46 segundoan hobetu zuen (51:28)

Giro ederrean jokatu zen pasa den igandean, hilak 2, Etxarri Aranatzeko Mendira Joan Etorria lasterketaren 47. edizioa, non Ion sola eta Maria Ordoñez nagusitu ziren, 10 kilometro eta 572 metroko desnibel positiboa duen proban.

86 korrikalarik hartu zuten parte Udaberri Elkarteak Etxarri Aranazko Udalarekin eta Nafarroako Mendi eta Eskalada Kiroletako Federazioarekin batera antolatutako proba beterano honetan. 1976an bi lagunen apustu gisa sortu zen. Erronka, lortutakoa, Hartzabalera ordubete baino gutxiagoan igo eta jaistea zen.

Aurtengo lasterketan, Maria Ordoñez nagusitu zen emakumezkoetan, 51 minutu eta 28 segundoko denborarekin. Bigarren Laiane Arrospeide tolosarra izan zen (59:34) eta hirugarren Maite Beregaña uharte arakildarra (1:01:07). Ordoñezek berak joan zen urtean ezarritako errekorra (52:14) apurtu zuen (51:28), 46 segundoan hobetu zuelarik.

Gizonezkoetan, Ion Sola izan zen irabazlea, 46 minutu eta 47 segundotan helmugaratuta. Hala ere, Juan Mari Garinek 42:50ean lortutako errekorretik oso urrun geratu zen iruindarra. Minutu pasa atera zion bigarren izan zen Aitor Blanco iruindarrari (47:32), Jokin Arretxeak (47:48) osatu zuelarik podiuma.

SAILKAPENA

Gizonezkoak

ION SOLA TORRALBA 00:46:47 ANOTZ
AITOR BLANCO URMENETA 00:47:32 TXANTREA
JOKIN ARRETXE LASTIRI 00:47:48 NARBARTE
IBAI ETXEBERRIA 00:48:21 AZPEITIA
ARITZ MUNARRIZ IGOA 00:49:58 ETXARRI ARANATZ
Emakumezkoak

MARIA ORDOÑEZ MARINA 0:51:28 IRUÑEA
LAIANE ARROSPIDE GARMENDIA 0:59:34 TOLOSA
MAITE BEREGAÑA IBERO 1:01:07 UHARTE-ARAKIL
NEREA AMILIBIA ARRUTI 1:01:19 ZARAUTZ
ENERITZ KARASATORRE ARAÑA 1:03:22 ETXARI-ARANATZ

→ <https://kirolerrekorrak.eus/gorlara-igo-eta-jaitsiz-1963ean-ezarritako-marka-hautsi-du-ibai-larreak/>

Gorlara igo eta jaitsiz 1963ean ezarritako marka hautsi du Ibai Larreak

2022.05.22 | EHKM, ERREKORRAK, ERRONKAK, ERREKOR BERRIA, GIZONAK, MENDI LASTERKETAK

Hemeretzi urteko antzuolarra Gipuzkoako kros txapelduna da eta maila oneko atleta izanik, bi minutu eta 44 segundo jan zizkion Jose Ignacio Garitanoren errekorari (34:46), 32:02ko denbora eginda

Herriko plazatik Gorlara korrika igo eta jaitsiz Jose Inazio Garitanok 1963an ezarritako errekorra gainditzeko ahalegina antolatu dute igande honetan, maiatzak 22.

Orduko hartan Garitanok 34 minutu eta 46 segundotan osatu zuen ibilbidea eta berak gonbidapena luzatua zien inguruko gazteei erronkan parte hartu eta 59 urteren ondoren marka hori gainditzen saiatzeko.

Duela lau urte, 2018an, antolatu zen berriz proba eta bost lagun lehiatu ziren. Aimar Larrea izan zen irabazlea eta errekorretik bi minutu eta 17 segundora geratu zen, 37:03 denborarekin.

Aurten berriz, bi korrikalari animatu ziren, antzuolarrak biak: mendi lasterketetan eta krosean hain ondo dabilen Ibai Larrea, Aimarren anaia, eta eskarmentu handiagoko Jon Iturbe.

Goizeko hamaika eta erdiak puntuan eman zitzaion hasiera lasterketari. Bideak garbitu zituzten aurreko egunotan inork min har ez zezan eta 2018an baino hobeto zeuden.

Gorlako aterpetxera 20 minutu eta 40 segundotan heldu zen Larrea, gorako zatia osatuz. Ordu laurden baino gutxiago zuen herrigunera itzultzeko, errekorra gainditu nahi izanez gero behintzat eta indarrak ondo neurtuta errekor berria ezarrita zapaldu zuen helmuga, 32:02ko denborarekin.

Hemeretzi urte ditu Larreak, Gipuzkoako kros txapelduna da eta maila oneko atleta izanik, sasoiari dagoela erakutsi eta bi minutu eta 44 segundo jan zizkion Garitanoren markari.

Jon Iturbe, berriz, 38 minutu eta 24 segundotan helmugaratu zen. Marka horrekin bigarren sailkatuko zen duela lau urteko ekitaldian.

→ <https://kirolerrekorrak.eus/asier-larruzea-eta-oihana-kortazar-txindokiko-kilometro-bertikalaren-igoera-azkarrenaren-egileak/>

Asier Larruzea eta Oihana Kortazar, Txindokiko Kilometro Bertikalaren igoera azkarrenaren egileak

2022.05.24 | EHKM, EMAKUMEAK, ERREKORRAK, ERRREKOR BERRIA, GIZONAK, MENDI LASTERKETAK

11 urte geroago, berriz ere lehiatu zuten 3,6 kilometro eta 980 metroko desnibela duen proba gogorra

Hamarkada bat igarota, 11 urte geroago, berriz ere Txindokiko Kilometro Bertikala proba jokatu zuten pasa den larunbatean, maiatzak 21, Abaltzisketan, Larraitzen. Igone Campos zumarragarrari sortu zitzaion proba berriz antolatzeko gogoia, eta Janire Agirre lagun ataundarrari egin zion antolatzeko proposamena. Mendi lasterketetan aritzen dira biak ala biak, eta elkarrekin heldu zioten proba antolatzeko erronkari. Duela hiru urte hasi ziren proba antolatzeko lanetan, baina, pandemiaren eraginez, azkenerako bertan behera utzi behar izan zuten 2020ko maiatzean egitekoak ziren proba, baina aurten helburua lortu eta posible izan dute lasterketa egitea.

Erlojuaren aurkako proba izan zen eta Kilometro bertikala izanik, Txindokik duen bertikaltasuna aprobeztatuz, desnibel handieneko ibilbidea aukeratu zuten antolatzailuek. Lasterkariak Larraizko langa ingurutik abiatu ziren banaka, Gaintzako bidegurutzera iritsi eta Oriako iturritik pasatu ostean, tximista ibilbidetik gora igo behar zuten gailurreraino. 3,6 kilometro egin behar izan zituzten korrika, 980 metroko desnibelarekin. Guztira 186 parte hartzaile izan ziren, horietatik 26 emakumezkoak.

Asier Larruzea gueñestarrak egin zuen gizonezkoetan denbora onena, 35.59rekin, eta ondorengo denbora onenak Mikel Beunza alkozarrak (36.25) eta Alcalá de Xiverteko Ricardo Chertak (36.46) egin zituzten.

Manuel Merillasen izena zegoen orainarte arte Txindokiko igoera azkarrenaren egiletzat. Honakoan baina, bost partaidek birrindu zuten haren 38:10 minutuko marka: Larruzeak, Mikel Beuntza (36:25), Ricardo Cherta (36:46), Iñigo Alzola (37:28) eta Aitor Ugartek (38:00).

Oihana Kortazar mutrikuarra izan zen azkarrena emakumezkoetan, 44.05eko denborarekin, marka honekin errekor berria ezarri zuelarik ere. Ainara Urrutia aretxabaletarrak egin zuen bigarren denbora onena (45.41) eta Maud Combarieu urruñarra izan zen hirugarren (47.43).

SAILKAPENAK

Emakumezkoak

1 KORTAZAR OIHANA 00:44:05 MUTRIKU

2 URRUTIA YURREBASO AINARA 00:45:41 ARETXABALETA

3 MAUD COMBARIEU 00:47:24 URRUGNE

4 AGIRREZABALA EZKURDIA LEIRE 00:47:43 IBARRA

5 LENDINEZ GARATE AINHOA 00:48:54 ELGOIBAR

Gizonezkoak

1 LARRUZZEA FERNANDEZ ASIER 00:35:59 GUEÑES

2 BEUNZA IRAIZOZ MIKEL 00:36:25 ALKOTZ

3 CHERTA RICARDO 00:36:46 ALCALÀ DE XIVERT

4 ALZOLA GORDOA IÑIGO 00:37:28 ARRASATE

5 UGARTE ERIZ AITOR 00:38:00 ARAMAIO

→ <https://kirolerrekorrak.eus/gontzal-murgoitiok-eta-onditz-iturbek-irabazi-dute-sorginen-lasterketa-errekorrak-hobetuta/>

Gontzal Murgoitiok eta Onditz Iturbek irabazi dute Sorginen Lasterketa, errekorrak hobetuta

2022.09.20 | EHKM, EMAKUMEAK, ERREKORRAK, ERREKOR BERRIA, MENDI LASTERKETAK

Iturbek orain arte zegoen erregistrarik onena 15 bat minutuan hobetu zuen 2.20.45ko denboran helmugaratuta, eta Murgoitiok indarrean zegoen errekorra lau bat minutuan ondu zuen, 1.58.54ko marka ezarriz

Sorginen Lasterketa Euskal Herriko mendi lasterketen erreferenteetariko bat izanik heldu da bere 15. ediziora, pasa den larunbatean, irailaren 17an, lehiatu zena, Euskal Herriko txapelketa ere izan zena.

Ibilbidea aurreko edizioko berdina izan zen, 21 kilometroko ibilbidea osatu zutelarik, 1.700 metroko desnibelarekin. Iaz arte asfaltotik bajatzen zen bidegorriraino, eta hortik aurrerako lehenengo kilometroak bidegorritik ziren. Orain, zuzenean hasten dira gorantza, Larrano barreneraino. Gero, Anboto azpitik pasatzen dira, Zabaletatik, eta galtzadan lehengo bidearekin bat egiten dute.

Euskal Herriko punta-puntako korrikalariak aritu ziren lehian honakoan, esaterako: mutiletan, Gontzal Murgoitio, Asier Larruzea, Imanol Goñi, Javi Goitia, Aitor Ajuria eta Markel Urigoitia; emakumeetan berriz, Onditz Iturbe, Ainara Urrutia, Ainara Uribarri, Andrea Garai eta Garazi Sampedro.

Azkenean, Sorginen Lasterketaren aurtengo lehia Gontzal Murgoitiok eta Onditz Iturbek irabazi zuten, bide batez errekorrak ondu zituztelarik, eta eurak dira aurtengo Euskal Herriko txapeldunak.

Emakumeetan Ainara Urrutia eta Onditz Iturbe taldekideen arteko lehia bizia izan zen seigarren kilometrora arte baina azkenean Ainara Urrutiak (Aiaramendi Korrikalariak Kirol Kluba) eta Ainara Urribarrik (Gaikar Zortzietakoak K.E.) ezin izan zioten Arantzazuko lasterkariari erritmoa jarraitu. Urrutiak aldea murriztu zuen jaitsieraren hasieran baina Iturbek oso indartsu bukatu zuen 2.20.45ko denboran helmugaratuta eta bigarren sailkatuari ia 4 minutu ateraz. Gainera, orain arte zegoen denborarik onena 15 bat minutuan hobetu zuen. Ainara Urrutia geratu zen bigarren (2.24.41) eta Ainara Uribarri hirugarren (2.29.22). Urrutiak eta Urribarrik ere aurten arte zegoen denborarik onena hobetu zuten.

SAILKAPENA

1 ONDITZ ITURBE ARGINZONIZ 02:20:45 ZELAIA (ARANTZAZU)

2 AINARA URRUTIA YURREBASO 02:24:41 ORO

3 AINARA URIBARRI MARTINEZ 02:29:22 OÑATI

4 OIHANA ZUBILLAGA BLANCO 02:34:37 ANOETA

5 IRATI LARRAÑAGA MATXAIN 02:45:31 USURBIL

Gizonetan Murgoitiok eta Imanol Goñi natxituarrak lehia estua mantendu zuten Anboto igo arte. Murgoitio eta Goñiren arteko buruz burukoak Pagazelairainoko igoera osoa iraun zuen, baina jaitsieran elorriarrak aurrera jo

zuen eta bakarrik helmugaratu zen. Imanol Goni bigarren izan zen (2.00.42) eta Hassan Ait-ek osatu zuen podiuma (2.03.29). Murgoiok bigarren aldiz irabazi du Sorginen Lasterketa. 2020an ere bera nagusitu baitzen. Gainera, orain arteko errekorra lau bat minutuan hobetu zuen, 1.58.54ko marka ezarriz.

SAILKAPENA

1 GONTZAL MURGOITIO ESPARZA 01:58:54 ELORRIO

2 IMANOL GOÑI ARANBURU 02:00:42 NATXITUA

3 HASSAN AIT CHAOU 02:03:29 VILLABONA

4 ASIER LARRUZZEA FERNANDEZ 02:04:05 GÜEÑES

5 AITOR ZUNZUNEGI TAPIA 02:04:48 LEGORRETA

→ <https://kirolerrekorak.eus/arrillagak-astigarragak-elorzak-eta-larrañagak-arretxinagako-txara-trail-lasterketako-lehenengo-markak-ezarri-dituzte/>

Arrillagak, Astigarragak, Elorzak eta Larrañagak, Arretxinagako Txara Trail lasterketako lehenengo markak ezarri dituzte

2022.10.10 | EHKM, ERREKORRAK, MARKAK, MENDI LASTERKETAK

Markina-Xemeingo Aringa-Aringa taldeak Arretxinagako I. Txara trail lasterketa antolatu zuen pasa den urriaren 2an

Markina-Xemeingo Aringa-Aringa taldeak Arretxinagako I. Txara trail lasterketa antolatu zuen pasa den urriaren 2an. Bi ibilbide zeuden aukeran: batetik, laburra, 11,7 kilometro luzerakoa eta 625 metroko desnibel positiboarekin; bestetik, luzea 18,5 kilometrokoa eta 1.125 metroko desnibel positiboarekin.

Antolatzaileak I. Txara traileko ibilbidea garbitzen aritu dira azkenaldian, besteak beste, Gerra Zibileko hiru bunkerretatik pasa behar zirelarik korrikalariak, baita lubaki batetik ere. Ura eta janaria jasotzeko hiru puntu ezarri zituzten ibilbidean Zapolan, Herribason eta Santa Eufemiko bolatokian.

Mendi lasterketako ibilbide motza burutu zutenen artean, Leticia Ainhoa Arrillaga Ezquerro nagusitu zen, 01.18.48ko denboran helmugaratuta. Malen Goitiz Irunguenpagatek eta Nahia Ibarzabal Gisasolak osatu zuten podiuma. Gizonezkoetan, berriz, Xabi Astigarraga Pagoaga nagusitu zen, 01.01.56 denboran osatu zuelarik 11,7 kilometroko ibilbidea. Jon Maiztegi Pagaldaik eta Igor Urionabarrenetxea Zaldunbideak osatu zuten podiuma.

Lasterketa luzean, berriz, Oier Elorza Abaunzek 01.45.50eko denboran osatu zuen 18,5 kilometroko ibilbidea, lehenengo postua eskuratuz, eta Jon Alberdi Etxabe eta Gaizka Ansola Garitagoitia igo ziren podiumera. Emakumezkoetan, 02.10.13ko denbora eginda Irati Larrañaga Matxain nagusitu zen, Larraitz Aragon Iruskietan eta Ainhoa Zelaia Agirrezabalen aurretik.

Sariei dagokionez, lasterketa luzeko irabazleak txapela, 100 euro eta herriko produktuen otzara eramane zituen etxera, bigarrenak 50 euro eta oroigarria eta hirugarrenak 30 euro eta oroigarria. Lasterketa laburreko garaileak aldiz, txapela, 50euro eta otzara irabazi zituen, bigarrenak 30 euro eta oroigarria eta hirugarrenak 20 euro eta oroigarria.

LASTERKETA LUZEAREN SAILKAPENA

Gizonezkoak

- 1 Oier Elorza 1:45:50 Azkoitia
- 2 Jon Alberdi 1:48:32 Zestoa
- 3 Gaizka Ansola 1:49:06 Markina-Xemein
- 4 Iñigo Gurrutxaga 1:50:44 Donostia
- 5 Zorion Kareaga 1:54:00 Markina-Xemein

Emakumezkoak

- 1 Irati Larrañaga 2:10:13 Usurbil
- 2 Larraitz Aragon 2:12:34 Durango
- 3 Ainhoa Zelaia 2:16:47 Errigoiti
- 4 Iera Urretagoiena 2:20:51 Donostia
- 5 Nahia Quincoces 2:25:06 Mendexa

LASTERKETA MOTZAREN SAILKAPENA

Gizonezkoak

- 1 Xabi Astigarraga 1:01:56 Mutriku
- 2 Jon Maiztegi 1:04:02 Markina-Xemein
- 3 Igor Urionabarrenetxea 1:06:19 Aulesti
- 4 Iñigo Pradera 1:06:40 Mallabia
- 5 Jon Patxi Aldaolea 1:09:20 Markina-Xemein

Emakumezkoak

- 1 Leticia Ainhoa Arrillaga 1:18:48 Donostia
- 2 Malen Goitiz 1:24:00 Gasteiz
- 3 Nahia Ibarzabal 1:24:03 Markina
- 4 Ainhoa Medina 1:30:46 Mungia
- 5 Ainhoa Enzunza 1:31:28 Mungia

→ <https://kirolerrekorak.eus/bustinduik-osak-eta-feijook-abaltzisketa-txindokiko-errekorra-hobetu-dute/>

Bustinduik, Osak eta Feijook Abaltzisketa-Txindokiko errekorra hobetu dute

2022.10.17 | EHKM, ERREKORRAK, ERRONKAK, ERREKOR BERRIA, MENDI
LASTERKETAK

Abaltzisketan hasi eta Txindokiko tontorrean amaituz marka bat ezarri zuten 2009an hiru abaltzisketarrek (Jon Zubizarreta, Mikel Senperena eta Iñaki Gorostidi), eta aurreko marka hori minutu bat eta 15 segundotan hobetu dute hiru ondarrarrek: Ioana Osa, Jon Feijoo eta Txomin Bustinduik

Pasa den larunbatean, urriak 15, Abaltzisketa-Txindoki erronka lehiatu zuten hiru ondarrutarrek (Ioana Osa, Jon Feijoo eta Txomin Bustindui), bere garaian Jon Zubizarreta, Iñaki Gorostidi eta Mikel Senperenak ezarritako 51:18ko marka hobetzeko asmoz.

2009. urtean burutu zen erronka hori, Jabi Lasa aizkolariak Abaltzisketako herriari botatako erronka batengatik: “Ez dago Abaltzisketan bat, ezta hiru herritarrik, nik baino denbora hobean ibilbidea osatuko duenik”. Hiru herritar erreleboka beste baten aurka, Abaltzisketatik Txindokiko tontorrera zein lehenago iritsi zen erronka beraz.

Hortik abiatuta, Jon Zubizarreta, Iñaki Gorostidi eta Mikel Senperena Abaltzisketako herritarrek erronkari eutsi zioten. Bakoitzak ibilbidearen zati bat eginda, Jabi Lasak botatako erronka irabazi zuten. Txindokiko gailurra jo zuten, Lasak baino 2 minutu eta 43 segundo lehenago.

Aurtengo lehia ordea, Jon Zubizarreta Abaltzisketako alkatearen eta Iñigo Toña ondarrutarraren arteko apustu batetik abiatu da, lagunarteko harremanean apustu bat egin zutelarik: Ondarroa Arraun elkarteak lehen mailan mantentzea lortuz gero, Arraun Elkarteko bandera ezarriko zuten Abaltzisketako Udalean. Apustua irabazita, Abaltzisketako herriaren eta Ondarroako Arraun Elkartearen arteko senidetza burutu zen larunbatean. Hortik abiatuta, mendi erronka berriro egiteko eskaintza etorri zen, eta onartu egin zuten.

Abaltzisketatik Txindokirainoko 6,2 kilometro eta 976 metroko desnibela duen ibilbidea burutu behar zuten hiru ondarrutarrek, abaltzisketarrek egin bezala, ibilbidea hiru zatitan banatu zutelarik.

Lehen kilometroak Ioana Osak egin zituen eta lehen erreferentzien arabera minutu bat galtzen bazuten ere, Jon Feijooen erreleboak markak parean jarri zituen. Azken zatian Txomin Bustinduik egindako esfortzuarri esker lortu zuten minutu bat eta hamabost segundotan jaitea errekorra. Hori bai, galtzaileek aurreratu dutenez erronka errepikatu nahi dute, eta ondarrutarrek ezarritako 50 minutuko eta hiru segundoko denbora hobetzen saiatu.

Egun berezia izan zen larunbatekoa, izan ere, erronkaz aparte, Herriko Etxekoandreen Eguna ospatu zuten lehen aldiz, eta beraiei omenaldia egiteko baliatu zuten. Lehenbizi Mikel Lasarte azpiroztarrak motozerrarekin etxekoandre baten egurrezko eskultura amaitu zuen herriko plazan. Ondoren, eskulturari zapia jarri zion herriko emakume helduenak, 95 urte dituen Maria Dolores Matxainek eta ondoan elkartu ziren herriko emakume ugari argazkia ateratzeko.

→ <https://kirolerrekorrak.eus/klabilloko-krosaren-lehen-markak-ezarri-ditzute-irigoienek-eta-azkoitik/>

Klabilloko Krosaren lehen markak ezarri ditzute Irigoienek eta Azkoitik

2022.12.19 | EHKM, LASTERKETAK, MARKAK

Burlatarrak, 29 minutu eta 59 segundoko marka ezarrita, hemendik aurrera ondu beharreko aurreneko erregistroa ezarri zuen eta otsagabiarrak lasterketa honen lehenengo marka ere ezarri zuen: 26 minutu eta 43 segundo

Mikel Azkoitik eta Naiara Irigoienek, 4 Mugas klubak antolatzen duen Klabilloko Krosaren palmaresa estreinatu zuten pasa den igandean Aibarren lehiaturiko 6,2 kilometro eta 200 metroko desnibel positiboko proban.

Lehen edizio honek 6 kilometro pasatxoko ibilbidea zuen, zailtasun tekniko berezirik gabekoa baina etengabeko igoerak eta jaitsierak zituena, eta bertan aritu ziren nor baino nor gehiago parte hartu zuten 63 lagunek.

Mikel Azkoiti Tanco, Otsagabiakoa eta Irati Salazar klubeko korrikalaria, nagusitu zen amaiera estua izan zuen gizonetzkoen lehian, garaipena esprintean erabaki zelarik azken zuzengunean. Azkenik, Azkoitik Eduardo Esteban gaingitu zuen, Yelko Pardiñas, Iruñean bizi den galziarrarekin batera, lasterketaren burua konpartitu ondoren hasieratik. Azken honek metro batzuk galdu zituen azken jaitsieran, eta hirugarren amaitu zuen, eta Alberto Azparren (Txurregi) izan zen laugarren.

Gauzak horrela, otsagabiarrak lasterketa honen lehenengo marka ezarri zuen: 26 minutu eta 43 segundo.

Emakumezkoetan berriz, Naiara Irigoien (A4xKm-ko mendi lasterketetan espezialista eta snowrunningeko Espainiako txapelduna eta mundialista) izan zen lehena helmugaratzen, lasterketaren lehen metroetatik jaun eta jabe izan zelarik. 29 minutu eta 59 segundoko marka ezarrita, hemendik aurrera ondu beharreko aurreneko erregistroa ezarri zuen burlatarrak. Atzetik, bigarren Laura Sanz eta hirugarren Paula Leoz iruindarrak sailkatu ziren, hurrenez hurren.

SAILKAPENA

Gizonezkoak

- 1 Mikel Azkoiti Tanco C.D. Irati_Salazar Otxagabia 0:26:43
- 2 Eduardo Esteban Garcia Independientea Zizur Nagusia 0:26:46
- 3 Yelko Pardiñas Garcia Independientea Iruñea 0:26:51
- 4 Alberto Azparren Telleria CCM Txurregi Aibar 0:26:53
- 5 Marcos Hualde Algarra CD Irati_Salazar Otxagabia 0:27:38
- 6 Miguel Angel Hernandez Arroyo Independientea Peralta 0:28:05
- 7 Bittor Balda Irurozki CCM Txurregi Irunberri 0:28:12
- 8 Oscar Primo Huarte CD Ardoi Irunberri 0:28:16

9 Eñaut Armendariz Huerta CCM Txurregi Irunberri 0:29:28

10 Gorka Indurain Gaston Independientea Irunberri 0:29:32

Emakumezkoak

1 Naiara Irigoien Indabe A_4_x_Km Burlata 0:29:59

2 Laura Sanz Garaialde Independientea Iruñea 0:34:46

3 Paula Leoz Zoco CD Navarra Iruñea 0:35:41

4 Andrea Martinez Vazquez CD Ardoi Zangotza 0:36:29

5 Aitziber Larrion Aenar Alsasuko_Mendigoizaleak Araia 0:38:58

6 Maite Ares Souto Hiru Herri AT Huarte 0:39:15

7 Maite Latasa Sola Independientea Noain 0:41:35

8 Leonor Arellano Oloki Independientea Esquiroz de Galar 0:41:39

9 Eloisa Izko Larrañeta Independientea Sarriguren 0:47:04

10 Lourdes Inocencio Pinto Independientea Errenteria 0:49:48